

ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA

ELKARBIZITZA

KONPETENTZIA

Oinarrizko Konpetentzien
eskuratze-mailari buruzko
txostena egiteko orientazioak

LH

Oinarrizko Konpetentzien
eskuratze-mailari buruzko
txostena egiteko orientazioak

DBH

ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun- irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.

Ikasleek egunero pertsonen artean izaten dituzten harremanen ingurune hurbilenera mugatzen da elkarbizitzaren esparrua:

- Familian
- **Ikastetxean**
- Lagun-taldean
- Jolasean
- Kirolean
- Auzoan
- eta beste hainbatetan


Osagaiak

1. Norberaren eta besteren nahiak asebetez komunikatzea; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu **asertiboan** adieraztea eta, era berean, gainerako pertsonen sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea (**enpatia**)



Asertibitatea eta enpatia dira oinarriak taldean lan egiteko, printzipio etikoen eta gizarte-arauen arabera jokatzeko eta gatazkak konpontzeko.



Asertibitatea ezak  Pertsona manipulagarria

Enpatia ezak  Agresibitatea

2. Taldean ikastea eta lan egitea,
nork bere ardurak onartuz eta
helburu komuneko eginkizunetan
lankidetzan arituz, pertsonen eta
iritzien aniztasunak dakarren
aberastasuna aitortuta.



3. **Giza eskubideen** ondoriozko printzipio etikoak betez jardutea eta elkarbizitzaren oinarrizko gizarte-konbentzioetatik ondorioztatzen diren **gizarte-arauak** betez jokatzeara.

- Pertsona guztiek eskubide berberak dituzte, haien sexua, arraza, etnia, jatorria, hizkuntza eta kultura edozein dela ere
- Gizarte-konbentzioak adostu behar dira elkarbizitzarako, baina, era berean, konbentzio horiek “arbitrarioak” eta aldagarriak direla jakin behar dugu.

4. Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.

Gatazka-egoera baten ezaugarriak:

- Desadostasun- edo liskar-egoera bat gertatzen da bi pertsonaren edo talderen –edo gehiagoren– artean.
- Pertsona edo taldeen interesak, beharrizanak, nahiak edo balioak bateraezinak direnean edo hala direla uste denean gertatzen da gatazka.
- Emozioek eta sentimenduek eragina izaten dute gertaeren interpretazioan.

LH-Adierazleak	O	T	A
<p>Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu, aktiboki eta errespetu osoz entzuten die besteei eta galdera egokiak egiten ditu.</p>			
<p>Kritika arrazoitua onartzen du eta gainerakoen azalpenak onartzen ditu.</p>			
<p>Ikasleen eskubideak, betebeharrak eta bizikidetzara-arauak errespetatzen ditu.</p>			
<p>Taldean giro ona, elkartasuna eta konfiantza- harremanak ezartzen ditu bai taldean eta lankidetzan aritzen denean, baita ingurune birtualetan ere.</p>			
<p>Harreman integratzaileak ditu ikaskideekin: besteekiko errespetua (kultura, etnia, arraza-desberdinak, hizkuntza desberdinak, desgaitasunak dituztenak, genero-berdintasuna...) erakusten du, pertsona guztiarekin lan egitea onartzen du eta beste pentsamolde batzuekiko aurreiritziak baztertzen saiatzen da.</p>			

LH-Adierazleak

O T A

[Gatazka-egoeren](#) aurrean jarrera solidarioa agertzen du eta estrategia konstruktiboak eta elkarrizketa erabiltzen ditu.

Konponbideak bilatzeko funtzionamendu [demokratikoaren](#) oinarritzko printzipioak errespetatzen ditu.

[Informazioa](#) eta [zereginak partekatzen](#) ditu, besteei adi entzun eta besteek esandakoa kontuan hartzen du.

Jarrera positiboa erakusten du, bere gain hartzen du [taldean](#) dagokion lana eta [arduratsua](#) da.

DBH-Adierazleak

O

T

A

Talde-lanean interesarekin integratzen da, erabakiak hartzen elkarlanean aritzen da, eginkizun zein arduren banaketa adosten du, eta taldearen epeak zein helburuak errespetatzen ditu.

Alde bakoitzak duen ikuspegiaren lekuan jartzen da, besteen arazoak adi entzuten ditu, beste aldeak arazoia izan dezakeela onartzen du eta bere ideiak era **asertibo** eta errespetuzkoan defendatzen ditu

Era egokian erabiltzen ditu harreman sozialeko oinarrizko **arauak**, ingurune birtualetan eta aurrez aurrekoetan (hitz egiteko txandak, kortesia-arauak, erregistroa, hitzik gabeko hizkuntza).

Besteekiko **errespetuzko** eran jarduten du berak edo beste batzuek egindako edukiak erabiltzean, baita erabilitako softwareaz ari garela ere; eta jabetza intelektuala errespetatzen du.

Alternatibak planteatzen ditu, **eztabaida-prozesua baloratzen du**, bide demokratiko eta baketsuen balioa azpimarratzen du eta elkarrizketa eta arauak lankidetzan modu gisa defendatzen ditu.

Aniztasunarekiko errespetua erakusten du: edozein eratako estereotipoak erabiltzea saihesten du eta diskriminazio-adierazpenak, adierazpen sexistak nahiz androzentrikoak antzematen ditu.

Talde-harremanetatik sortzen diren eskubide eta betebeharrak onartu eta errespetatzen ditu.

Oinarrizkoa	Tartekoa	Aurreratua
<p>Oso gutxitan gai da.</p> <p>Laguntza handia behar du.</p> <p>Zailtasun handiekin egiten du.</p> <p>Gainbegiraturua edota erabat gidatuta dagoenean gai da.</p>	<p>Batzutan gai da baina ez modu orokorrean.</p> <p>Zailtasun batzuk adierazten ditu.</p> <p>Batzuetan gogoratu behar zaio edo laguntza puntualak behar ditu.</p> <p>Egiten duenean, partzialki autonomia adierazten du baina ez osokoa, edo ez beti.</p>	<p>Bere ohiko egitekoan txertaturua du.</p> <p>Autonomiaz egiten du.</p> <p>Gai da egindakoa justifikatzeko eta besteek hobetu dezaten laguntza emateko.</p>

TRATU ONA
GUZTIONA